

# noaua

**Jubilatuen asterik  
gustukoena**

**“Irribarre batekin  
oroituko dugu Jontxu”**

**Larunbat honetan  
kontzertu gaua  
Aginagako Eliza  
Zaharrean**



**Igerilekuko  
berritze-lanak  
apirilean amaituko dira**

Usurbilen,  
zure auto-tailerra

Atallu  
AUTOAK

Motorra  
Balaztak  
Mekanika  
Esekidurak  
DOHA INIK IAT-aurrekoa  
Pneumatikoak  
Ihes Kanalizazioak  
Injekzio Elektronikoa  
Berehalako Zerbitzua

EuroTaller

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoaki@gmail.com

FUNERARIA  
GONZALEZ  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es

# Herri Batzarra

ehbildu Usurbil

@EHBilduUsurbil  
@ehbildu\_usurbil  
Ehbildu Usurbil  
ehbildusurbil@gmail.com

- 1) Zerrendaburuaren aurkezpena eta berrespena
- 2) Herri-programaren lehen zirriborroaren aurkezpena eta lanketa

otsailak 9  
Potxoenea  
10:00-13:00

Gogoratu hauteskunde prozesuan parte hartzeko izena eman behar dela honako helbidean:  
[elkarrekin.ehbildu.eus/register](http://elkarrekin.ehbildu.eus/register)

## Albiste irudituan

# Giro ederra Aginagako bertso-afarian

O horezko gonbidatuekin, gaualdi ederra bizi izan zuten otsailaren 2an Aginagako Atarialde elkartean, Antxomolantxa Herri Elkartek eta Eliza Zaharrak antolatutako bertso-afarian. Menu ederraz gain, bertso saio borobilaz gozatu ahal izan zuten.

### Julio Soto, Sebastian Lizasoren ordez

Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Markel Eizagirre bertsolarien izenak iragarriak zeuden baina Lizaso gaixotu egin zen eta bere ordez Julio Soto aritu zen kantari.

Aginagatik jakinarazi digutenez, "hiru ordu pasatxoko saioa egin zuten umorez betea. Alberto Pikabearen gai jartzeak ere mundialak izan ziren".



Ibai Arrieta argazkilarik ateratako argazkian, Andoni Egaña bertsoan.

## Laburrean

### EHBilduren zerrenda buruaren aurkezpena

Larunbat honetan (otsailak 9), 10:00-13:00 artean, maiatzaren 26ko hauteskundeetako zerrendaburua aurkeztuko du Usurbilgo EHBilduk Potxoenean. Horrekin batera, herri programaren zirriborroa aurkeztu eta landuko da.

### 1944an jaiotako bazkaria

Maiatzean biltzeko deia egin dute 1944an jaiotakoek. Bazkariaren eguna eta tokia, izen ematearen gainerako xehetasunak aurrerago plazaratuko dituzte. Momentuz, deialdi honekin NOAUA! bidez hitzordua iragarri nahi dute.

### Arrate Elkartek telefono zenbaki berria du

Aurreko astekarian berri eman genizuen moduan, telefonorik gabe zen Aginagako Arrate jubilatutako elkarteak. Dagoeneko eskuratu dute zenbaki berria. Elkartearekin harremanetan jartzeko hona deitu beharko da aurrerantzean: 692 898 492.

# noaUA

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaUA.eu ||| www.noaUA.eu  
Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eu

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaUA.eu:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietia, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herra!



Garazi Lizaso Manterola

## Datuak

Zenbakiak gora eta portzentajeak behera. Laster etorriko zaigu ate-joka martxoaren 8a eta berarekin ekarriko ditu, besteak beste, greba feminista, datu-zaparrada eta puntu moreak.

Badirudi, datuek ez dutela gezurrik esaten. Batek baino gehiagok pentsa dezake “zenbakiak dira eta, nola ez, objektiboak”. Aldiz, ez da horrela. Betaurreko moreak jantzi eta pare bat adibide irakurtzea.

Jakin badakigu, urte berria hastearekin batera, kontagailua hutsean jartzen dela hainbat kontuan. Esaterako, zerotik hasten dira zenbatzen emakume erailak. Ondoren, martxoaren 8an edota azaroaren 25ean, bolo-bolo erabiliko dituzten zenbakiak

besterik ez dira izango. Horrela, ezkututuko dituzte horien atzean zeuden bizi proiektuak, ametsak eta aurrera egiteko grinak. Esango dute “aurten-goan hainbeste” eta kito. Horiek datu ofizialak dira, baina ez benetakoak. Izan ere, genero-indarkeriatzat hartzen direnak soilik kontatzen dituzte, hau da, gizonezko bikotekideek edo bikotekide ohiek erailtzen dituzten andreak.

Hala ere, zabalagoa d(ir)a emakumeen aurkako indarkeria(k). Ziur nago gogoan izango duzuela 2008ko San Ferminetan gertatutakoa. Hain zuzen ere, Diego Yllanes mediku-psikiatrank Nagore Laffage neska gaztea erail zuen. Hori ez da genero-indarkeria, ez baita bikotekidea edo bikotekide ohiaren (era)hiltzailea.

Beraz, erailketa matxista da eta ez du lekurik zenbaki ofizialen artean.

Eraildakotik hildakoraino desberdintasunak dauden bezala, genero-indarkeriatik erailketa matxistetara ere badaude diferentziak.

2003an jasotzen hasi ziren datu ofizialen arabera, Espainian, 47 emakume erail zituzten 2018an bikotekideek eta bikotekide ohiek. Matxismoak, berriz, 97 emakume erail zituen iaz espainiar estatuan (ikus: <https://femicidio.net/> eskertzekoa da egiten duten lan guztia).

Urtero-urtero, urtarrilaren 1arekin batera kontagailua hutsean pare uzten dugun arren, azken hamabost urtetan (2003-2018), Espainian, 976 emakume erail dituzte gizonezko bikotekideek eta bikotekide

ohiek (genero-indarkeria).

Hildako/eraildako guztiak hutsetik kontatzen al ditugu urtero? Zergatik bai? Zergatik ez? Beraz, zer-nolako datuak eta zifrak saltzen dizkigute?

### Oharra:

Emakume erailen inguruan soilik hitz egin dut. Kontuan hartu behar da emakumeenganako indarkeria askoz ere zabalagoa dela (sinbolikoa, ekonomikoa, fisikoa, psikologikoa, instituzionala...) eta ertz ugari dituela (arrazak, klasea, sexualitatea, adina, erlijioa, kultura, hezkuntza-maila, estatus ekonomikoa, jatorria, aniztasun funtzionala...). Horietako hainbat faktore elkar gurutzatzen dira.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | **Garazi Lizaso Manterola** | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

### Ika-mika

## Mugikorrek behar ditugu, Ugandako haurrei laguntzeko

Ziortzako DBH4ko gazteon aurtengo proiektu solidarioa Mukwano-Lagun elkarteari laguntzea da. Elkarrekin hau 2006. urtetik, Bujagali izeneko Ugandako herritarra txiki bateko biztanleei laguntzen ari da. Afrikako haurtzarora zaintzeko elkarrekin Orioko herrian du bere sorrera. Ez zaigu beraz oso urrun geratzen proiektu hau usurbildarroi.

Bujagalin, biztanleria handiko Jinja zonaldeetik kilometro gutxira dagoen herriraino, baldintza kaskarreko bizitzak dituzte gaixotasun eta hilkortasun-tasa handiak umezurtz asko uzten dituelarik. Hiriburutik gertu egoteak ere ahultasun gehiago ekartzen ditu,

besteak beste tratu txarrak, esplotazio fisikoa zein sexuala, abandonua eta abar. Eskolaratzea, arropa eta janari defizita eta beste hainbeste arazok ere bat egiten dute egoera larrituz.

Baina, Mukwano-lagun elkarteari esker arazoetariko batzuei konponbidea eman zaie azken urte hauetan. Lehenik osasun arloan aritu ziren lanean, ondoren hezkuntzaren alorrari konponbide bat emanaz. Gaur egun, egindako lanaren emaitza dira 500 ume ingururi hezkuntza zerbitzuak (ikasketak, eskola materiala, irakasleen soldatak...) eta eguneko otordu bat ematen zaien eskola baten irekiera, herritarrek zuten elikadura defizitari amaiera emateko oilategi bat

sortzea, 700 koltxoi, manta eta moskitera banatzea, gaixotasunei aurre egiteko sendagaiak eta osasun zerbitzuak kudeatzea eta abar. Baina oraindik asko dago egiteko eta guk ere badugu zer lagundu!

Oraindik osasun zerbitzuak ez dituzte eskura, eta larrialdien baten aurrean inguruko herriekin eta medikuarekin komunikatzeko zailtasunak dituzte. Honi gehitu behar zaio bertako irakasle eta langileen arteko komunikazioa ere ez dela erraza, ez baitira guztiak gertu bizi. Bi kasu hauetan eta beste askotan, mezuak pasatzeko duten baliabide bakarra oinez ordu askoko bidaiak egitea da, premiazko kasuetan ez duten denbora galduz. Edono-

lako garraioak lortzea oso garestia baita bertan. Komunikazioaren arazoari irtenbide bat emateko, gure proiektu solidarioa erabili nahi dugu eta horretarako herritarren laguntza beharrezkoa zaigu. Mugikorren bilketa egin nahi dugu:

Zer behar dugu?

Funtzionatzen duten eta egoera onean dauden mugikorrek (interneterako sarbidea dutenak).

Non bilduko ditugu?

Sutegiko sarreran.

Noiz? Otsailak 16, 18.30-20.00.

Otsailak 17, 12.00-14.00.

Mila esker.

**Ziortzako DBH 4-ko gazteak.**

# GuraSOSen manifestaziorako atxikimendu bilketa

Otsailaren 23rako “Adostasunari esan baietz!” aldarripean, GuraSOS-ek Donostian (17:00etan, Antiguako tuneletik) deitu duen manifestaziora begira, atxikimendu bilketa kanpaina abiatu du. Hondakinen kudeaketarekin dugun gatazka adostasunez konpontzea eskatuko da manifestazio handi honetan. Baina deitzaileek ohartarazten dutenez, haratago doa deialdia. Hondakinen kudeaketa erdua soilik ez, gizarte erdua, demokraziaren kalitatea, duintasuna eta etorkizuna ditugu jokoan.

Aipatu moduan, hitzordu honi begira, manifestazioko leloa bera izenburutzat duen atxikimenduak biltzeko manifestua plazaratu du GuraSOSek, Gipuzkoako gizarteko sektore anitzen ahalik eta babes handiena jasotzeko asmoz. Herritarrok ere manifestaziorako atxikimendua eman ahaliko dugu. Ariketa erraz bat proposatzen digu GuraSOS-ek. Manifestazioko karteletako adostasunaren keinua irudikatuz, hau da, eskuko hatz potoloarekin baiezkoa emateko egiten dugun keinua adierazten duten argazkiak ateratzeko gonbita luzatzen digute lagun talde-



Manifestazioa otsailaren 23an egingo da Donostian.

## ARGAZKI BILKETA

**Asteotan jasotako argazkiekin mosaiko erraldoi bat osatu asmo du GuraSOS-ek.**  
**Mosaiko hau, otsailaren 23ko manifestaziora iragartzeko baliatuko dute**

tan, familietan, lantokietan... Eta GuraSOS-i helarazi.

Informazio gehiago: gurasos.org

## Mosaiko erraldoi bat

Asteotan jasotako argazkiekin mosaiko erraldoi bat osatu asmo du GuraSOS-ek. Mosaiko hau, otsailaren 23ko manifestaziora iragartzeko baliatuko dute.

## Otsailaren 23ko manifestaziora girtzeko deialdiak

### Otsailak 10, igandea

■ 12:00 Bideo labor baten estreinaldia eta aurkezpen publikoa, erraustegiaren kontratua publiko egingo dute eta otsailaren 23ko manifestaziora babesteko talde argazkia aterako dute, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean.

Antolatzaileak: GuraSOS, Hitzartu.

### Otsailak 12, asteartea

■ 18:30 Mahai-ingurua Donostiako Aiete Jauregiko Gandhi Aretoan: “Esperientzia aitzindariak hondakinen kudeaketan”.

■ Partaideak: Sebastián Saso, Balearreko Gobernuaren ingurumen eta hondakinen

zuzendari orokorra; Lorea Flores, Greenpeace-ko kidea; Esther Larrañaga, Eusko Jaurilaritzako Ingurumen Sailburu ohia eta Hitzartu prozesuko Berme Batzordeko kidea.

Antolatzaileak: GuraSOS, Greenpeace eta Globernance.

## OEIT-ren azken datuak

Osasuna eta Errausteta Ikerketa Taldea, hondakinen erraustetak osasunean duen eraginaz diharduten mundu mailako ikerketa ezberdinen datu kezkarriak plazaratzen dabil astero, sare sozialetan bidez. Azken egunotan, Italiako “Mortality and morbidity in a population exposed to multiple sources of air pollution: A retrospective cohort study using air dispersion models” ikerketako datuak dakartza.

## Hilkortasun-tasa handia

“Kohorte azterketa erretrospektibo honetan 7 kilometroko erradio batean kutsadura-iturri ezberdinek daukaten inpaktua aztertzen da. Hiri-hondakinen erraustetari dagokionez, beste emaitzen artean dio, pankreako minbiziagatik hilkortasuna %40-70 handitzen dela bi sexuetan”.

## Ika-mika

# GARA eta lan-taldearekin elkartasuna

Joan den asteazkenak egun alaia izan behar zuen GARA egunkariko lankideentzat. Hogei urte bete ziren lehen zenbakia argitaratu zutenetik, eta ospatzeko moduko lorpen handia da hori, batez ere komunikabideentzat bizi dugun aro zail honetan.

Aitzitik, poztasun zantzurik

ez genuen sumatu GARAREN arduradunek egunkariaren urteurrenean egindako agerraldian: erredakzioa hutsik eta erdi ilunpetan zegoela, datozen urteotan hiru milioi eurotik gora ordaintzera derrigortuta daudela azaldu zuten, zer eta Espainiako justiziak berak legez kanpokotzat jotako EGIN egunkariaren itxieraren ondo-

rioak ordaintzeko.

Lerro xume hauen bidez, NOAUA! aldizkariak eta Euskal Herri osoko 66 toki komunikabide batzen dituen TOKIKOMek GARARI ezarritako zor horren bidegabekeria publikoki salatu nahi dugu, komunikazio proiektuaren bideragarritasuna kolokan jarriz prentsa askatasuna eta aniz-

tasuna ere kaltetzen dituelako, eta elkartasuna adierazi nahi diogu GARAREN lan-talde osoari. Toki komunikabideetan oso jabe gara prentsa aniztasunak duen garrantziaz, eta haren alde diharduenak ondoan izango gaitu.

**TOKIKOMeko Administrazio Kontseilua.**

# Pentsio eta bizi duinak defendatzen segiko dute

**H**ala iragarri zuten, giro euritsua tarteko, Mikel Laboa plazan izan beharrean, pentsio publiko eta bizimodu duinak defendatzeko, kolektibo honetako herriko kideek urtarilaren 31n frontoian egin zuten elkarretaratzean.

Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkarte eta Aginagako Arrate jubilatuek elkarrekin deitutako mobilizazio amaieran adierazi zuten, maiatzaren 26an ospatuko diren hauteskundeak arte, pentsio eta bizi duinen alde mobilizatzen segiko dute hilero azken ostegunetan Usurbilen, 19:00etan Mikel Laboa plazan (euria bada, frontoian). Usurbildik gertuen bestela, astelehenero mobilizatzen dira Lasarteko Okendo plazan, 11:30-12:00 artean.

## **Pentsiodun emakumeen %45 alargunak dira**

Hauteskunderen bezperatan gainera, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak



Astelehenetan Lasarte-Oriako Okendo plazan elkartzen dira eguerdiko 11:30ean eta Usurbilen hilero azken ostegunetan arratsaldeko 19:00ean Mikel Laboa plazan.

### **DEIALDIA**

**Maiatzaren 26an ospatuko diren hauteskundeak arte, pentsio eta bizi duinen alde mobilizatzen segiko dute hilero azken ostegunetan Usurbilen**

mobilizazio egun bateratua egitekoak dira lau herrialdeetan; Araban, Bizkaian,

Gipuzkoan eta Nafarroan. Oraindik zehazteke dagoen egun horretan, gaurko eta etorkizuneko pentsio publiko duinak defendatzera deituko dituzte beste herri eta gizarte eragile edo mugimenduak.

Usurbildarrak ere mobilizazio hauekin bat egitera deitu zituzten aurreko astean. Mobilizazio amaieran plazaratu zuten adierazpenean, emakumeak eta pentsioak izan zituzten hizpide; genero arrakala hartu zuten ahotan. Emaku-

me pentsiodunek diru-sarrera baxuagoak izan bizi osoan eta "zahartzaroan pentsio txikiak izateak pobreziarako arriskua handiagotzen digu". Etxeko langileak dira asko, era askotako lanak egin arren, "injustiziazko soldatak eta kotizazio gaizki baloratuak" izaten dituzte.

Pare bat zifra; pentsiodun emakumeen %45 alargunak dira Euskal Herrian eta haien %70a pobreziaaren atalasearen azpitik bizi da.

## Jubilatu Astea, bete-bete

**P**entsiodunen eskubi-deen aldeko mobilizazioaren ostean, Jubilatuek Aste betearen dira Usurbilgo Gure Pakea jubilatuek elkarteko kideak.

Agate Deuna Egunaren bezperan kantuan abiatzekoak zituzten ekitaldiak. Eguntan deialdi gehiago; tartean, gogoan izan, "Halako batean bagoaz Benidorrera" antzezlanaren estreinaldia izango dugula jubilatuek elkarrekin eskutik. Jubilatuek Astearen osterako, bazkideen arteko txapelketak iragarri ditu Gure Pakeak:



Ostiral honetan, "Halako batean bagoaz Benidorrera!" antzezlanaren Sutegin.

### **Otsailak 7, osteguna**

16:30 Osakidetzaren eskutik, hitzaldia Artzabalen.

### **Otsailak 8, ostirala**

17:30 Gure Pakea Elkartearen eskutik, "Halako batean

bagoaz Benidorrera!" antzezlanaren Sutegin auditorioan. Sarreara doan.

### **Otsailak 9, larunbata**

17:00 Herriko eta inguruko soinu-joleekin arratsalde pasa

Sutegin.

### **Otsailak 10, igandea**

12:00 Meza nahi dutenentzat.  
14:00 Bazkaria Aginaga Sagar-dotegian.

### **Bazkideen Arteko Txapelketak**

#### **Otsailak 12, asteartea**

16:30 Karta jokoak Artzabalen.

#### **Otsailak 13, asteazkena**

16:30 Toka eta igel jokoak Artzabalen.

Oharra: ekintzetarako izen ematea aurrez, Gure Pakea Elkartearen Artzabalen duen bulegoan.

Antolatzailea: Gure Pakea.

## Egin-en zor bidegabeari aurre egiteko laguntza eskatu du GARA-ren zuzendaritzak

20 urte bete zituen urtarrilaren 30ean GARA egunkariak. Baina ez da urtemuga gozoa aipatu hedabideko zuzendaritzak egun berean egin zuen agerraldia aintzakotzat hartuz gero. Gara egunkariak 20 urte bete zituen egunean, aipatu egunkariko zuzendaritzak “Egin”en zorrari aurre egiteko Gizarte Segurantzarekin aurrekordio batera heldu zela berri eman zuen.

GARAREN egunerokoan eragin nabarmena izango duen ondorioa ekarriko du honek, “oso latza da. Datozen urteetan, sei hilabetero, milioi erdi euroko ordainketak egitera behartzen gaitu. Hartzekodunen hitzarmenaren amaieran, guztira, 3 milioi euro baino gehiago izango dira”. GARAK dituen langile guztien urtebeteko soldaten kostu guztia baino dirutza handiagoa da.

Guztiz bidegabetzat jotzen duten zorra. “Gure inguruko inongo hedabidek ezingo luke horrelako kolpe bat jasan. Gure inguruko inolako enpresak ez du horrelako jazarpenik jasan. Hau lapurreta bat da”. Eta euskal prentsaren aurkako, prentsa askatasunaren aurkako eraso.

### “Ilegalki itxi zuen”

Gogoan izan, GARA 1999ko urtarrilaren 30ean jaio zen, Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile Baltasar Garzonek 1998ko uztailean Egin egunkaria eta irratia ixtea agindu ostean. “Justizia espainiarrak ilegalki itxi zuen, bere arduradunak espetxean eta baldintza izugarrietan izan zituen denbora ikaragarri luzez, ondoren bere ondarea suntsitu egin zuen eta gure bila etortzea erabaki zuen”.

“Egin”ek Gizarte Segurantzarekin zuen 4,7 milioi eu-



“Datozen urteetan, sei hilabetero, milioi erdi euroko ordainketak egitera behartzen gaitu. Hartzekodunen hitzarmenaren amaieran, guztira, 3 milioi euro baino gehiago izango dira”.

### GARA

**“Gure inguruko inongo hedabidek ezingo luke horrelako kolpe bat jasan. Gure inguruko inolako enpresak ez du horrelako jazarpenik jasan. Hau lapurreta bat da”**

roko zorra GARARI egotzi zion 2003an, beste hedabide bat, Euskaldunon Egunkaria itxi

berritan. “Euskal prentsaren aurkako eraso bateratua izan zen”, GARA-ren zuzendaritzak agerraldi bidez oroitarazi zuenez. 2009an Espainiako Auzitegi Gorenak Eginen itxiera legez kanpoko zela aitortu arren, zor horrek hor egoten segi du gaur arte. GARA, “milaka pertsonaren ekarpenari esker lortutako kapital berria, lantalde berria eta proiektu berria izan arren, “enpresen ondorengotza ideologikoa” ezarri ziguten eta zorra leporatu”.

## Laguntzarako deia

Testuinguru honetan, solaskidetzarako bidea zabalduko dute, eragile, erakunde eta gizarte zibilarekin. Horrekin batera, “barne gogoeta bati ere ekin diogu, kolpe honi nola aurre egin hausnartzeko”. Iragarri dutenez, “bitartekoak jarriko ditugu eraso honen aurrean laguntza eraginkor bat bideratzeko eta elkartasuna

egituratzeko”. Horretarako, “etorkizunera begiratzeko, eskatzen dugu zuen laguntza”. Babesa, bai euskal erakundeei eta laguntza euskal gizarteari. Konponbide honetan lagundu duten guztiak eskertu nahi izan dituzte. “Oraindik beraien babesa behar dugu zoritzarreko gertakari hau ixteko”, gogorarazi dute.

### Bigarren Euskaraldia, 2020ko udazkenean

Ahobizi eta Belarriprestok adi, konturatzerako Euskaraldia bueltan datorkigu eta. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herrian 220.000 lagunek (1.300 baino gehiago Usurbilen) eginiko ariketa kolektiboak jarraipena izango zuela iragarri zuten sustatzaileek, joan den urte amaierako 11 eguneko ekimena amaitu berrikan. Data finkatu dute orain; geure hizkuntza ohituretan eragin eta euskararen erabilera sustatzea helburu duen ekimenaren edizio berria iragarri dute, 2020ko udazkenean.

Estreinako edizioan bezala, Ahobizi nahiz Belarriprest rolen bidez, iazko udazkenean 11 egunez egin eta hasitako ariketari segida ematea, Euskaraldian parte hartzea gonbidatuko dira herritarrak. Eta berrikuntza bat ere aurreratu dute; 2020ko udazkeneko ariketa kolektibo berrian, erakunde publiko, enpresa, saltoki, elkarte eta entitateen artean oro har, haien guztien jardunean euskararen erabilera indartzeko konpromiso zehatzak hartzea bultzatuko da.

### Martxoan hirugarren galdetegia

Gogoan izan, Euskaraldian estreinako edizioaren eragina neurtzeko ikerketa egiten ari da Soziolinguistika Klusterra, parte hartzaileei email bidez helarazitako 3 galdetegi bidez. Lehen bi galdetegi olatua igaro zen; lehen galdetegia Euskaraldia hasi baino lehen eta bigarrena amaitu berrikan osatu beharra zegoen. Baina adi, hirugarren galdetegia osatzea falta zaigu. Martxoan helaraziko zaigu emailaz.

# Coral Herrera, otsailaren 15ean Potxoenean

**M**aitasun erromantikoa sakon aztertu eta lantzen dabil. Giza zientzia eta komunikazioan doktorea, genero ikuspegitik giza zientzien inguruko gaien ikertzaile eta idazle ezaguna da Coral Herrera (Madril, 1977). Udaleko Parekidetasun Sailak gonbidatuta, otsailaren 15ean 18:30etan Potxoenean izango da. Maitasun erromantikoaz luze zabal ariko da.



Ikertzaile madrildarra maitasun erromantikoaz ariko da luze zabal.

## NOAUA! Zeintzuk izango dira Potxoenean jorratuko dituzun hispidak?

**Coral Herrera:** Idatzi ditudan bi liburuei (“Mujeres que ya no sufren por amor” / “Hombres que ya no hacen sufrir por amor”) buruz hitz egingo dut. Prozesu honetan doktore tesi batekin hasi nintzen. Bertan, ikuspegi feministatik maitasun erromantikoa aztertu nahi izan nuen: nola eraikitzen den maitasun erromantikoa, gizon eta emakumeok nola ikasten dugun modu ezberdinetan maitatzen, maitasuna nola aldatzen den klase sozialaren, zonalde geografikoaren, garai historikoen edota adinaren arabera. Ikuspegi honetatik, maitasuna eraikuntza sozial, politiko eta kulturala da. Eraikitzen den moduan deseraiki eta berreraikitzen da. Nire lan, blog, liburu eta maitasunaren eskolan egiten dudana lanarekin luzatzen dudana mezua, maitasuna berrasmatu daitekeela, ho-

**CORAL HERRERA**  
**“Maitasunean gozamenik ez bada, ondo pasatzen ari ez bazara, plazerraren ordez mina baldin badago, ez du merezi”**

rretan oinarritzen da. Maitasun erromantikoaren azpian dagoen ideologia (kapitalismoa eta patriarkatua) aztertu dezakegu, baina maitasunean nola sufritu gutxiago eta gehiago goza dezakegun ere. Nola ikasi, hobeto maitatzen jakiteko.

### Hobeto maitatze horretan, nola gaude egun?

Ez ditugu behar beste lanabes, gure emozioak kudeatzeko. Ez digute irakasten ondo maitatu eta tratatzen. Kontrakoa, indartsuenaren legea zein den, lehiatzen eta gure emozioak erreprimitzen, helduen artean dauden ereduak betikitzen irakasten digute. Matxismoak

blaituriko maitasun erromantikoak asko sufriarazten gaituela ikusita, maitasuna matxismoatik nola askatu, horretara bideratu dut lanketa. Maitasuna gerra bat dela, ideia horrekin amaitzea litzateke asmoa eta harreman osasuntsu, parekide, orekatu eta politikak eraikitzea ahalbidetuko diguten lanabesak sortzea. Maitasunean gozamenik ez bada, ondo pasatzen ari ez bazara, plazerraren ordez mina baldin badago, ez du merezi.

### Eremu honetan aurrerabidean gara?

Urte asko daramat, doktore tesiak plazara atera eta azterlan akademiko hauei aplikazio praktikoko bat bilatu behar zaiela aldarrikatzen. Bloga eta sare sozialen bidez denbora honetan eztabaida kalera eta agenda feministaren erdigunean jartzea lortu dudala uste dut: nola ari garen elkar maitatu, tratatu eta zain-

tzen, nola adierazten ditugun gure afektuak, nola ikasi genezakeen gure gatazkak konpon-tzen indarkeriarik gabe... Duela urte batzuk, maitasunaren gaia norbanakoen gaitzat jotzen zen, norbere esparru pribatuari zegokiona, eta oraingo lorpena izan da gizarteratzea eta maitasun erromantikoa politikoa ere badela ulertzea. Maitasuna gai sozial eta kolektiboa dela.

### Zeintzuk dira aurre begirako erronkak?

Aurrean dugun erronka zera da; nola askatu maitasuna matxismoatik eta nola gozatu gehiago maitasunaz. Nola eraiki gizarte maitekor bat, maitasun lotura eta tratu maitakorrean oinarritua. Egun erromantizismo handia dago, baina maitasun gutxi kaleetan. Hor daude gorrotzoko diskurtso guztiak; matxismoaren, arrazakeriaren, klasismoaren, xenofobiaren diskurtsoak... Maitasunarekin soilik egingo diogu aurre hainbeste gorrotori eta hainbeste indarkeriari. Nire laneko giltzarrietako bat, maitasuna zergatik den hain biolentoa ulertzean datza. Eta nola askatu genitzakeen bereziki emakumeak, kontrolean, dominazioan, indarkerian eta matxismoan oinarrituriko harremanetatik. Lanabesak sortzea baliagarria eta lagungarria izan daiteke denontzat, tratu txarretan, parekideak ez diren eta dominazioan oinarrituriko harremanetatik irteteko.

## “Beste modu batean maitatu daiteke”

**NOAUA! Gai honetan, aipatzekoa da gizonetakoak duten erantzukizuna.**

**Coral Herrera:** Feministok maitasun iraultza egiten ari garelakoan nago. Erdigunean jartzen ari gara, zaintza, afektuak, giza harremanak eta duela denbora dezentetik lantzen ari gara indarrean den patriarkatua, tailer, jardunal-

di, liburuen irakurketa eta lagun artean. Orain inoiz baino ezinbestekoagoa da gizonen maitasun iraultza honekin bat egitea. Gauza asko birplanteatzeko ordua da; nola harremantzen diren gizonetakoak haien ama, amona, arreba, lehengusu eta lankideekin, nola ligatzen duten gustuko diuzten emakumeekin, nola

tratatzten dituzten haien bikotelagunak... Batera egin beharko genukeen lanketa da, baina oraintxe praktikoki emakumeok bakarrik ari gara egiten. Eredugarri dira, feminismoaren aliatu diren gizonen taldeak. Oso gutxi dira oraindik, baina geroz eta gehiago dira. Indarkeria matxistari aurre egiten ari diren

gizonak dira, beraien lanketa egiten ari dira.

Baikorra naiz, nik uste dut geroz eta gizonetako gehiago direla, ikasi, irakurri, entzun, hitz egin eta haien burua zailantzen jartzeko gogoz daudenak. Beste modu batzuetan harremandu eta maitatu daiteke, ez da zertan betiko patrioekin segi.





## “Biziki asetu nau Lehen Hezkuntza graduko esperientziak”

**M**aier Tapia Alkorta orain 43 urte Usurbilen jaiotakoa da eta geroztik herrian bertan bizi dena. Gaur egun, Lehen Hezkuntzako gradua burutzen ari da Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) Fakultateko Eskoriatzako campusean, eta aurtan, azken ikasurtea egiten ari da.

**Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?**

Nire orain arteko ikasketak Administrazioa, Finantzak zein Marketinarekin lotutakoak izan dira eta arlo horiekin kateatutako lanetan ibili naiz azken bi hamarkadetan. Edo nola ere, betidanik izan dut hezkuntza arloekiko ardura eta kuriositatea, mundu horretan murgiltzen diren pertsonekin harremana izan dudalarik. Horrez gain, zaletasunei dagokienez, alde batetik, naturarekin kontaktuan egotea gustuko dut eta bestetik, bidaiatzea nire beste pasioetako bat da.

**Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza gradua? Eta**



Gaur egun, Lehen Hezkuntzako gradua burutzen ari da Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) Fakultateko Eskoriatzako campusean.

### **MAIER TAPIA**

**“Betidanik izan dut hezkuntzarekiko jakin-mina eta ama izan ondoren, gai horrekiko nuen interesa, suaren garrak moduan indartu zen”**

**zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Aurrez adierazi dudan moduan, betidanik izan dut hezkuntzarekiko jakin-mina eta ama izan ondoren, gai horrekiko nuen interesa, suaren garrak moduan indartu zen. Su horren indarrak nire orain

arteko ibilbideaz hausnartzea ekarri zidan eta egindako go-goetak, nire etorkizuna gatzetxoan artean nire ekarpena eginaz aurrera eraman nahi nuela erabakitzea. Bada, horrek guztiak ekarri zidan egun HUHEZIn Lehen Hezkuntzako gradua egiten hastea.

Ate ezberdinak jo ondoren, nire gradua HUHEZIn egitea erabaki nuen, batez ere, proiektuak lan egiteko duten metodologiagatik eta horretan duten eskarmentuagatik. Nola bait nire etorkizuneko irakasle profila eraikitzeke bermea bertan nuela sentitu nuen eta babestua sentitu nintzen. Hasieratik oso gertuko harremana

egin zitzaidan, etxean bezala sentitu nintzen.

**Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Orain arte Fakultatean bizitakoa esperientzia oso aberatsa izan dela esango nuke. Azken lau urteok, gizartearen hezkuntza jasaten ari den aldetan inguruan hausnarketa sakonak egiteko baliagarriak izan zaizkit eta behin hortik gakoak identifikatuta, nire etorkizuneko irakasle lanbidetan aplikatzeko alderdiak mahai gaineratu ditut.

**Nola definituko zenuke jasotzen duzun ikasteko metodologia baliagarria?**

Metodologiari dagokionean, makina bat proiektu eta ikerketa aurrera eraman ditugu, dela hizkuntzarekin lotutakoak, IKTekin, alderdi emozionalarekin, gure eskola ideala sortzen... bizitako esperientziak biziki asetu nau! Nire interesekin lotutako proiektuetan parte hartu ahal izan dut eta hori garrantzitsua izan da lanean motibatuta aritzeko eta egindako proiektuetan taldekide guztiok inplikatzeko.

## “Nire gustuko proiektuak aurrera eramateko aukera dut”

**Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?**

Bada, horixe izan da Unibertsitatetik gehien gustatu zaidana, hau da, talde proiektuei dagokionez, nire gustuko proiektuak aurrera eramateko aukera izatea. Banakako proiektuetan, berriz, nire kritikotasuna lortzera

iristeko, horiek garatzerako orduan eskatu zaigun hausnarketa maila. Hobetzekoei dagokionean, ikaste-emaitza eta ebaluazioaren alderdia aipatuko nitzuke. Halere, Fakultatea dagoeneko horren kontziente da eta horien inguruko irizpideak definitu, martxan jarri eta klaseetako metodologian aldatetako egiten hasia da.

**Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Aurrera begira jarrita, ikasketak hauek orain arte bezala, ahalik eta zuku gehien ateraz eta gozatuz amaitzea da nire asmoa eta etorkizuneko irakasle izateko lan mundura salto egitea. Hori guztia, betiere, hezkuntzarekiko dudak jakin-minaren suak iraun de-

zan lan eginaz: bizi dugun gizarte honetan pertsona ahaldundu eta zoriontsuak egoteko nire aldeko ekarpena eginaz. Finean, Joxan Artzeren hitzak gogora ekarriaz: “Begiak argi, belarriak erne, bihotza zabal behar ditugu noiznahi gure beharrean inor balitz berarekin gaitzan...”.

# Txokoalde, film berri baten grabazio gunea

**E**zohiko mugimendua izan dute egunotan Txokoalden. Film berri bat grabatzen aritu dira Torrearen eraikinean. Urtarrilaren 30ean bertaratu ginenean, Portu basterriaren atarian, Txokoaldera garraiatutako garai bateko ondoko autobus zaharra aparkatu nahian zebiltzan. Kamioi ugari aparkatuta baita, Zumeta jatetxe ingurutik hasi eta Kentuene pareraino.

Eta filmaketaren zero gunean bilakatu zuten Torrearen eraikina. Hortxe ari ziren grabatzen, “Ventajas de viajar en tren” estatu espainiarreko aktore oso ezagun ugari (Luis Tosar, Pilar Castro, Ernesto Alterio, Quim Gutiérrez, Belén Cuesta, Macarena García, Ramon Barea, Ingrid García Jonsson...) parte hartzen ari diren filma. Antonio Orejudoren izen bereko liburuan oinarritua dago, Aritz Moreno (Donostia, 1980) zuzentzen ari den ikus-entzuzko. Estreinako intrigazko luzemetraia du.

## Filmaren sinopsia

Burua erabat nahastua zuen senarra psikiatriko batean ospitaleratu beharrean aurkitu



Filmaketaren zero gunean bilakatu zen Torrearen eraikina.

## INTRIGAZKO LUZEMETRAIA

**Aritz Moreno**

**“Ventajas de viajar en tren” izeneko filma zuzentzen ari da**

den Helga Pato editore literarioa trenez egiten ari den itzulera bidaian da. Angel Sana gustinekin egingo du topo. Bidaia arintzeko, bere bizitza azaltzea proposatzen dio Angelek Helgari. Angel aipatu klinika berean lan egiten duen psikiatra da. Gaixoen idatzi eta

kontakizunen bidez nortasun arazoak ikertzen ditu. Angelek inoiz kudeatu behar izan duen kasu kliniko bitxi eta zailena kontatzen dio; beste gauza askoren artean, zaborrarekin obsesionatua egon, eta gaixo oso arriskutsua den Martin Urales de Ubedarena.

## Udazkenerako prest

Filmeko zuzendaria eskualdeari lotua dago, Andoaingo Bideo eta Zine Eskolan ikasitakoa baita. 2004an zuzendu zuen bere lehen laburmetraia, “Por-

tal mortal”. Bideoklipak, laburmetraiak, denetariko ikus-entzuzko proiektuak gauzatu ditu. Maiz saritu dute. Egunotan Txokoalden grabatzen aritu diren estreinako luzemetrai hau udazkenerako amaitzea aurreikusten dute, Gipuzkoa eta Nafarroako beste hainbat txokotan filmatu ostean.

Urte eta erdiko tartean bigarrenez hautatu dute ingurune hau film bat grabatzeko. 2017ko udazkenean, gogoan izan, “Oreina” grabatu zuten Aginaga eta Usurbil artean.

## Nataliren bideoklip berriaren grabaziorako figuranteak behar dituzte

“Zerbait aldatzera doa”, hala izena du Usurbilgo Natali musika taldeak sorturiko abesti berriak. Abestiarentzako bideoklipa grabatzera doaz larunbatean, otsailaren 9an eta figurante bila dabilta. “Adin guztietako jendeak parte har dezake bideoklipetan”, adierazi dute.

### Aginagan grabatuko da

Bideoklipa otsailaren 9an (la-

runbata) grabatuko dute, goizeko 10:30ean hasita Aginagako Eliza Zaharrean. Interesdunek deitu dezatela edo whatsapp mezu bat helarazi, 688 636 967 telefono zenbakira. Eta grabazio egunean ordu erdi lehenago, 10:00ak aldera agertu daitezela Aginagako Eliza Zaharrera. “Zu ere animatzen bazara, otsailaren 9an 10:30ean Aginagako Eliza Zaharrean ikusiko dugu elkar!”, adierazi dute.

### Diska eta bira, ate joka

Natali taldea, aipatu abesti honen eta kanta gehiagoren zati-txoak aurreratzen ari da azkenaldian, sare sozialen bidez. Kanta guztiok lan berri batean plazaratuko Natalik. “Laster jakinaraziko dizuegu diska noiz kaleratuko den!!”, iragarri dute. Irailean grabatu zuten estreinako diska Andoaingo Garate Studioetan, Kaki Arkarazo teknikari eta produktore lane-

tan zela. “Diska entzuten duen orok, musika estilo ezberdinetan barrena eramango du, istorio eta sentimenduz beteriko abentura bat lez”, dio Natalik.

Martxorako “Garena Tour” kontzertu bira iragarri du Natali osatzen duen boskoteak: Natali Izagirrek, Ixak Arrutik, Olaia Inziartek, Gorka Mendizabalek eta Andres Insuak. Informazio gehiago: natalimusika.com

# ETXEBIZITZA BERRIAK UGARTONDON

Jaureguizarrekin hitz egin dugu, nortzuk diren eta haien lan jardura azaldu diezaguten.

## Nola definituko zenituzkete Ugartondon egingo dituzuen etxebizitzak?

**Natalia:** Ugartondoko berdegunean kokaturiko 1 eta 4 logela arteko etxebizitza modernoak izango dira, efizientzia energetiko maila altuarekin guztiak.

Hiru motatako etxebizitza izango dira; batzuk babes ofizialekoak, beste batzuk tasatu munizipalak eta azkenik, libreak.

Azkenik, garajeak eta trastelekuak izango dira ere etxebizitza guztientzat.

## Nola doaz salmentak? Ba al dago etxebizitza tasatu bat erosteko aukera?

**Natalia:** Salmentekin pozik gaude, etxebizitza libreetan, bi logeletako etxebizitzak bukatu dira eta hiru logeletako gutxi batzuk gelditzen dira otsailean hasiko garen lehen fasean. Etxebizitza libreek oso distribuzio erakargarriak dituzte, baita terraza oso handi batzuk, 3 logeletako etxebizitza galanta batzuk gelditzen zaizkigu, eta Usurbilgo herritarrentzat, Usurbildik atera gabe, ondo kokaturiko ingurune berde batean bizia ahal izateko aukera paregabea.

Etxebizitza tasatuetan ere oraindik aukera badago eta a ze aukera paregabea!

Euskal Jaurlaritzako baldintza orokorrak betetzen badituzue, zatozte informatzera; guztiz egokitutako sukaldea eta armairu enpotratuak dituen etxebizitza bat lor dezakezue oso prezio onean, 161.000 eurotatik aurrera gutxi gora behera garajea eta trastelekua barne, gainera, gure etxebizitza guztietan ordainketa moduak oso erosoak dira.

Etxebizitza tasatuetan logela kopurua, orientazioa eta abar aukeratu daiteke, beraz, etorri dadila laster!

## Lehen etxebizitza modernoak izango direla esan duzue, zertan izango dira modernoak?

**Natalia:** Batez ere, oso etxebizitza eraginkorrak izatean, hori izan da diseinu fasean eduki dugun helburu garrantzitsuenetarikoa.

JAUREGUIZARrek EMAS ziurtagiria du, Euskal Herriko konstruktora bakarra eta lehenengoak izan gara hau lortzen; beraz, argi dago ingurugiroa guretzat puntu garrantzitsua dela.

Ugartondoko etxebizitzetan hainbat neurri hartu dira alde batetik ingurugiroa zaintzeko eta bestalde etxebizitzaren eraginkortasuna lortu eta bermatzeko.

Neurri asko dira baina esanguratsuenak honako hauek dira; Energia berreskuratzeke ECO igogailuaren erabilpena, eguzki energia termikoa, errendimendu altuko eta CO2 emisio baxuko banakako berogailua, emisibitate txikiko kristal bikoitza eta argi naturalaren optimizazioa.



## Nora jo behar dute interesatuek?

**Natalia:** Usurbilgo Kale Nagusiko 10.ean dugun bulegora etor daitezke lasai, 619508392 telefonoan ere Nataliak behar duten informazioa guztia emango die, gure web orria ere ikus dezakete [www.jaureg.com](http://www.jaureg.com) eta azkenik gure Instagrameko profilaren (@ugartondousurbil) jarraitzaile egin daitezke, han otsailetik aurrera obraren aurrerapenak ikus ahal izango dituzte eta.



# Kiroldegiko igerilekua, sakoneko berritze lan betean

Oiardo Kiroldegira sartzean, igerilekura ematen duen aldea horma batek estaltzen du joan den urritik. Hormaz bestalde, etenik gabe lanean dabilta, igerilekuen eremua sakonetik eraberritzen. Egunerokoan ezin da bertan egiten ari diren lanen gaineko jarraipena egin. Urta-rrilaren 30ean salbuespentxo bat egin ziguten.

Horma hau zeharkatzeko aukera izan genuen Usurbilgo Udalak antolatutako bisita gidatuari esker. Obra zuzendari-tzako eta enpresa eraikitzaileko ordezkariak bidelagun izan genituen bisitan zehar, urrian abiatu zituzten lanak zertan diren eta egin asmo dutena azaldu zuten.

Lehen inpresioa; lanak ez dira amaitu oraindik, baina jada nabarmen itxuraldatua dago Oiardo Kiroldegiko igerilekuen eremua. Igerilekuen eremuak oso bestelako forma eta tamaina hartu du jada.

Hasteko, data bat aipatu behar; urrian abiatu zituzten lanok “martxa normalean doaz”, Usurbilgo alkate Xabier Arregiren esanetan. Obra Zuzendari-tzak eta enpresa eraikitzaileak Udalarri jakinarazitakoaren arabera honenbestez, aurreikusitako epearen baitan, obrak apirila alderako amaituak egotea aurreikusten da.

## Azalekoa eta azpialdekoa berrituko dute

Igerilekuen gunea nabarmen itxuraldatua dagoela esan dezakegu, baina Udaletik azpimarratu duten moduan, itxuraldaketa soil bat baino askoz sakonagoa da bertan gauzatzeko ari diren egitasmoa. “Ez da obra apaingarri bat. Benetako egiturazko aldaketak egi-



Igerilekuen eremuak oso bestelako forma eta tamaina hartu du jada.

## BERRIKUNTZAK

**Batetik, igerileku txikia handituko dute. Etorkizunean, 0,75 metrotik hasi eta 1,2 metroraizako sakonera izango du. Handitzearekin batera, lehen zeuden oztopo arkitektonikoak ezabatuko dituzte eta irisgarri bilakatuko dute igerileku txiki handitua**

ten ari dira igerilekuan”, alkaterearen esanetan.

Batetik, igerileku txikia handituko dute. Kiroldegi sarreraren eremuko zati bat baliatuko da horretarako. Etorkizunean, 0,75 metrotik hasi eta 1,2 metroraizako sakonera izango du. Handitzearekin batera, lehen zeuden oztopo arkitektonikoak ezabatuko dituzte eta irisgarri bilakatuko dute igerileku txiki handitua.

Joan den asteko bisitan zehar, begi bistan izan genuen igerilekuaren alderdi ezkutua ere. Azpiegiturari buruz ari gara. Zaharkituak zeuden eta berritzen ari dira; besteak beste, uraren filtrazio eta klimatizazio sistemak. Klimatizazio sistemari lotuta, Udaletik nabarmendu dutenez, “kanpoko airearen sarrera baimenduko da etorkizunean eta horrek igerilekuko tenperatura baldintzak hobetzea ekarriko du erabiltzaileentzat”.

Igerilekuko baldintzak hobetzeak, gune honek gainean duen eskubaloi eta bestelako kirol jarduerari hainbaten pistako tenperatura baldintzetan ere hobeto eragitea aurreikusten du Udalak, “goiko tenperatura hobetu eta ez delako hainbeste berotuko”. Orain arte bertan pilotzen zen beroa hainbestekoa ez izatea, tenperatura baldintzak hobetzea espero dute honenbestez.

## Igerilekuko lanak datuetan

■ Obren hasiera: 2018ko urria.

■ Obren bukaera (aurreikuspena): 2019ko apirila.

■ Aurrekontua: 760.000 euro inguru (Foru Aldundiaren 250.000 euroko diru-laguntza).

■ Lanok bideratzen ari den enpresa: Mariezcurrena.

■ Lanen xehetasunak: Igerileku txikia handitu eta irisgarri bihurtzea. Igerilekuko instalakuntzen eta azpiegituren eraberritzea.

■ Proiektuaren sustatzailea: Usurbilgo Udala.

■ Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.

# Proiektu zabalagoaren baitan

Oiardoren eraberritze eta hobetze proiektu zabalago baten baitan kokatuak daude lanok. Egitasmo horretako lehen fasea litzateke honakoa. Etorkezunean, zehazteke dago noiz, baina balizko bigarren fase batean, Kiroldegiko eraikin osoaren irisgarritasun baldintzak hobetu nahi dituzte.

Hirugarren fasean, aforoari dagozkion hobekuntzak bideratuko lituzkete eta laugarrenean, egun berritzen ari diren igerilekuen eremua uda garaian kanpoko erabilerarako baliatzeko lanak egitea litzateke asmoa. Horri begira, igerileku handia inguratzen duten leihoak handitzen ari dira. Horri esker igerilekuari kanpoko erabilera ahalbidetzea erraztu eta gainera, argitasun handiago izango du eremuak.



Bigarren fase batean, Kiroldegiko eraikin osoaren irisgarritasun baldintzak hobetu nahi dituzte.

## BAZKIDEEN TXOKOA



Otsailaren 8an ZOZKETATUKO dugu:

IRUIN  
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO  
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN  
TXOTXI!

**noaua! euskararen aterpe**

# “Iribarre batekin oroitu behar dugu Jontxu”

**A**rrasto sakona utzi du Jon Uribe Navarro gazteak Usurbilen, zer esanik ez bihotzekoa zuen Kalezarren. Badira bost urte gure artetik joan zenetik baina denon oroimenean bizi asko segitzen du Jontxuk.

Horren erakusle, azken urtean Kalezarko Jai Batzordea ontzen aritu eta otsailaren 2an Haraneko aparkalekuan eta Saizar Sagardotegian ospatu zuten auzotar gaztearen aldeko omenaldi egun handia. Jontxuren nortasuna, bizitza bizitzeko modua ederki islatzen zuen egitaraua josi zuen Kalezarko Jai Batzordeak, Kalezarko auzokidea zendu zeneko 5. urtemugako oroimen egun honetarako.

## Hasteko, herri kirolak

Herri kirol erakustaldi ikusgarriarekin abiatu zuten eguna. Inaxio Perurena harri jasotzailerak 200 eta 250 kiloko harriak altxatzen ikusi genuen, 111 kiloko harri zilindrikoarekin karpakunetik paseatzen. Harriotako bat baino gehiago, beso baten gainean hartuta. Artean, lehia bizian aritu ziren Jokin Alkizalete zein Axier Pellejero aizkolariak.

## 100dik gora lagun Saizar sagardotegian

Gero, Saizar Sagardotegian ehunetik gora senide eta lagun bildu zituen Jontxuk, zuen lagun talde anitz eta jendetsuaren adierazgarri, Eli Pagola eta Beñat Gaztelumendik girotu zuten hitzorduan.

Goizaldera arte luzatu zen Jontxuren aldeko omenaldia Haraneko karpa barruan. Oholtza gainean, Uriberen aspaldiko lagun musikariak; Rukula, Mendeku Itxua, Desejin, Izeberg, Eskean Kristo, Hotzikara, Odolaren Mintzoa...



Haraneko aparkalekuan eta Saizar Sagardotegian ospatu zuten Jon Urbe auzotar gaztearen aldeko omenaldia. Argazkian dira antolatzaileak, senideak eta partehartzaileetako batzuk.

## JOANA LERTXUNDI

**“Kalezartar bezala, ekainean San Joanak ospatzerakoan beti oroitzen dugu, beti ateratzen dira Jontxurekin izandako bizipenak. Jon beti dago presente”**

## “San Juanetako su eta jabe”

Kalezarko Jai Batzordeak antolatu zion otsailaren 2ko omenaldi egun handia Jontxuri. Asko eman baitzion gazteak auzoari, eta zehazkiago, San Juanei. “Kalezartar bezala, ekainean San Joanak ospatzerakoan beti oroitzen dugu, beti ateratzen dira Jontxurekin izandako bizipenak.

Jon beti dago presente”, adierazi dio NOAUA!ri aipatu jai batzordeko kide Joana Lertxundik.

Horren lekuko urtero festetako plazan, Uriberen irudierekin bere omenez zintzilikatzen duten “San Juanetako su eta jabe” pankarta. Larunbatean, Haraneko karpalekuan eseki zuten, oholtza parean.

# “Pozik eta topera gozatuz bizi izan zen”

Kalezarko Jai Batzordeak Jontxu pozik eta aske oroitzen du. “Pozik eta topera gozatuz bizi izan zen. Aske”, Beñat Arrutik oroitzen duenez. Belaunaldi ezberdinetako jendearekin zuen hartueman nabarmen dute. “Jendearen bihotzetara heldu eta guztiok konkistatzen gintuen. Sozializatzeko eta inguruko guztiei ondo erortzeko gaitasun harrigarria zuen”. Adin tarte guztietako herritarrekin zuen hartueman. “Gaitasun ikaragarria zuen jende desberdinengana heltzeko, denek maite zuten”, nabar-



Senide eta lagun ugari batu ziren bertso-bazkarian.

mentzen du Beñatek.

## Emandakoa itzuli

Jonek emandako guztia bueltan jasotzeko bada urtebete omenaldi eguna antolatzen

hasi zirenetik. “Auzotar eta herrikide hainbat maitatua izanda zerbait berezia antolatu nahi genuen”, Kalezarko Jai Batzordetik aditzera eman dutenez.

# “Kontzertu asko aurkezten zizkigun”

Omenaldi eguneko kontzertu gauak argi erakutsi zuen, Jontxuren musika zaletasuna, eta bereziki herriko taldeekin zuen harreman estua. Orduak pasa zituen, Usurbilgo musikarien entsegu lokaletan, eta bai herrian zein herriatik kanpo musika taldeok egindako bira bat baino gehiagotan parte hartu zuen. Iaz oholtza gainera itzuli zen Mendeku Itxua dugu horren lekuko zuzena.

“Kontzertu guztietara etortzen zen”, oroitzen du taldeko kide Ixak Arrutik. Taldeko beste kide bat baino gehiago zen Uribe, taldearen eta kontzertuko lekukoaren arteko lehen hartuemanak bideratzen zituena izateraino. “Kontzertu lekuetara heltzen ginenean, beti bera gure aurrean jarri eta berak izaten zuen lehen hitza teknikari eta antolatzaileentzat. Kaixo ni Jon, Mendeku Itxua jefe. Denei bostekoa ematen zien eta gero gu hasten ginen agurtzen”, Ixaken esanetan.



Musika talde asko aritu ziren Jontxuren omenezko kontzertuan. Irudian, Desegin taldea.

## IXAK ARRUTI

**“Usurbilen  
altxor asko daude  
eta Jon horietako bat zen.  
Jon irribarre  
batekin oroitzen dut”**

### “Gure jefea zen!”

Kontzertu atarian soilik ez, emanaldiak ere askotan gazte

kalezartarrak abiatzen zituen. “Kontzertu asko aurkeztu zizkigun. Gure jefea zen!”, gogoratzen du Mendeku Itxua taldeko kideak.

Bizipen asko izan dituzte Jonekin. “Usurbilen altxor asko daude eta Jon horietako bat zen. Jon irribarre batekin oroitzen dut”. Bere hutsunea nabari dute, nola ez. “Omenaldi egun hau oso berezia da. Fal-

tan botatzen dugu. Mendeku Itxua itzuli den honetan, bera falta zaigu”, azpimarratzen du Arrutik.

Ez dira ahaztu ezta ahaztuko ere Jontxurekin bizitako guztiaz. “Hainbeste markatu zigun eta hainbeste ibili ginen berarekin, hil artean gogoratuko dugu”. Nola, oso argi du. “Irribarre batekin oroitu behar da Jon”.

## Herri kirol erakustaldia



Lehia biziaren aritu ziren Jokin Alkizaleten zein Axier Pellejero aizkolariak. Inaxio Perurenak aldiz, tamaina eta molde ezberdineko harriak menderatu zituen.

# Agate Deuna bezperako kantariak



Ikastetxeetan arratsalde partean aritu ziren kantari. Iluntzean abiatu zen Usurbilgo Kantu Taldearen eta Gure Pakearen arteko kalejira. Zubietarrak ordea, otsailaren 3an igandearekin aritu ziren kantari (behean, eskuineko argazkian). Irudi bilduma osoa [noaua.eus/Argazkitegia](http://noaua.eus/Argazkitegia) atarian ikusgai.



# Gipuzkoako Eskola Txikien jaia prestatzeko lanketa betean

**M**otorrak berotzen jada Aginagan. Ekainaren 9an ospatuko duten Gipuzkoako Eskola Txikien jaia antolatzeko lanketa betean dira dagoeneko. San Praixku Guraso Elkarteak deituta, otsailaren 2an informazio bilera egin zuten. Bertan jaia-aren nondik norakoak azaldu zizkieten, ekimenaren antolakuntza lanak bideratzen hasia den guraso taldea; guneak, zenbat eta non izango diren; jaialdi egunaren nondik norakoan gaineko zehaztasunak eskaini zituzten... Hitzordua, herritarrak zertan laguntzeko prest leudekeen zehazten has- teko baliatu nahi zuten.

Aurrera begira bilera gehiago egitekotan dira. Guraso elkar- tetik gogorarazten dutenez, “2019 urtea oso berezia izango da aginagarrontzat. Guztion ar- tean, erronka handi bati egingo diogu aurre, ekainaren 9an Gi- puzkoako Eskola Txikien festa ospatuko baita gure herrian. Beraz, aurretik ere ohituta gau- den arren, auzolanean jardute- ko urtea izango dugu bereziki aurtengoa”.

Auzolan horri begira, mo- mentuz bi deialdi plazaratu dituzte. Batetik, ekainaren 9ko jaialdi egun horretarako bolon-



Jaia ekainaren 9an ospatuko da Aginagan. Aurrera begira bilera gehiago egitekotan dira.

## ESKAERA

**Eskola Txikien jaialdiaren aurreko hamabostaldian, argazki erakusketa bat egin nahi dute ikastetxeari lotutako irudiekin. “Eskertuko genuke, eskolarekin lotura duten argazkiak izanez gero, gurekin kontaktuan jartzea”**

dresak beharko dituzte; bes- teak beste, Aginaga bitan za- titzen duen N-634 errepidearen zainketa lanetarako, baita egu- nean zehar antolatuko diren ekitaldi, tailer, ikuskizunetan laguntzeko, edota bertaratuko diren guztiei eskaini beharreko zerbitzuak (jan edana...) ber-

matu ahal izateko.

## Argazki erakusketa

Lanotarako bolondres gisa aritu nahi dutenek, email bat idatzi baino ez dute aginaga@ eskolatxikiak.org helbidera. Helbide horretara bertara mezu bat helarazi behar du baita on- doko deialdiaren ekarpenik egin nahi duenak ere.

San Praixku Guraso Elkar- tetik ohartarazi dutenez, ekai- naren 9an Aginagan ospatuko den Gipuzkoako Eskola Txi- kien jaialdiaren aurreko hama- bostaldian, argazki erakusketa bat egin nahi dute, ikastetxeari lotutako irudiekin. “Eskertuko genuke, eskolarekin lotura du- ten argazkiak izanez gero, gu- rekin kontaktuan jartzea”.

## Korrika Batzordearen hurrengo bilera

Otsailaren 1eko lehen saioan batzordea osatu eta lehen proposamenen lanketari ekin zioten. Ekarpenok zehazten segitzeko bigarren hitzor- dua finkatu dute; otsailaren 15erako 18:30ean Etumeta AEK euskaltegian. Gogoan izan, Korrika babesteko modu ezberdinak dituzuela. Arropa erosi, Korrika Laguntzailea kanpainarekin bat egin edota

apirilaren 12ean gure artetik igaroko den euskararen aldeko martxako ibilbideko kilome- troak eskuratzeko aukera duzu euskaltegian bertan.

■ Informazio gehiagorako: Nagusia, 43 607 609 379 usurbil@aek.eus aek.eus muntteri.blogspot.com.es korrika.eus

## Txirikorda, hirugarren parte hartze saioa

Ugartondoko urbanizazio ber- rian etxebizitza komunitario bat osatu nahi da. Egitas- moa definitzeko parte hartze prozesu bat dago martxan. Otsailaren 16rako deitu dute hirugarren bilera. “Espazioen diseinua” gaia landuko dute, 10:30-12:30 artean Potxoenean.

## Prekarietatearen aurkako elkarretaratzea

Aztarrিকা, Usurbilgo gazte mugimenduak prekarie- tatearen aurkako eta lan zein bizi duinak exijitze- ko elkarretaratzea deitu du ostegunerako (otsailak 7), 19:30etan Mikel Laboa pla- zan. “Prekarietateari ateak itxi” aldarripean egingo den kontzentrazioaren bi- dez, Ernai gazte erakundeak hilaren 16rako 17:30etan Bilboko Euskadiko plazan deitu duen mobilizazio na- zionalarekin bat egingo da. Testuinguru honetan, “Gazte ta prekario” tailerra egin zuten Potxoenean, o- tsailaren 1ean. Aztarririkari buruzko informazio gehia- gorako: [instagram.com/aztarrika](https://www.instagram.com/aztarrika)

## Bihurri ludotekako bazkidetza ordaintzeko garaia da

2018ko kuota ordaintzeko epea otsailaren 28an amai- tuko da. “Bazkide berriek 30 euro pagatu behar dituzte eta jada bazkide direnek 10 euro”. Ordainketa ondoko kontu zenbaki honetan egin behar da:

ES3230080259103545905527 (Rural Kutxa).

## Zalantzak argitzeko

Ludoteka utzi duten gura- soek giltza itzuli beharko dute. “Ludotekako bazkide izateari uzten dioten fam- iliei giltza itzuli dezatela eskatzen diegu”, Bihurriko kideek aditzera eman digu- tenez.

Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko, ludotekako tabloira jo de- zakezue edo ondoko helbi- dera mezua bidali: [bihuririludoteka@gmail.com](mailto:bihuririludoteka@gmail.com)

## Argazkilari taldearen erakusketa Sutegin

Argazkigintzarako zaletasunik ez da falta Usurbilen. Sutegino erakusleioa horren ispilu dugu egunotan. 2018-19 denboraldi honetarako Einean Guraso Elkarteak antolaturiko ikastaroen artean, bada bat Ibai Arrietak zuzendurikoa, oinarritzko argazkilaritzaren ingurukoa. Ikasle taldeak eginiko lanak ikusgai dituzue otsailaren 10era arte, kultur etxe atarian.



Otsailaren 10era bitarte ikusgai izango da Sutegino erakusketa gelako atarian.

## Aginaga Sagardotegiak jai giro betean ospatu zuen urteurrena



27 urte ireki zutela. Urtemuga ospatzeko ezin une egokiagoa beraz. Joan den otsailaren 1ean, afari eder baten bueltan oroituz zuten urteurrena Aginagan Sagardotegian. Musikaz girotu zuten hitzorduak goraino bete zuten sagardotegia.

### “Xiberotarren maskarada hatsa” erakusketa

NOAUA!k plazaratu duen egutegian Iñaki Agirresarobe Arzallusen argazkiak topatuko dituzue. Bestelako irudiak dira Zarautzen ikusgai ipini dituenak. Zuberoako Maskaradan eginiko argazkiak batu ditu Euskalduna tabernan. “Zuberoan, mendeetan zehar, urtarriletik apirilera bitartean euren Inauteriak ospatzen dituzte. Maskarada izena dute Inauteri hauek eta kalerik-kale, etxerik-etxe dantzan eta kantari ibiltzen dira. Bertan, buhameak, Pitxu, errejenta, zaldiko-maldiko eta beste hainbat pertsonaia ageri dira. Aurten, urtarrilaren 6an Urdiñarben hasirik, apirilaren amaiera arte iraungo dute”, Iñaki Agirresarobe Arzallusek ohartarazi digunez.

Otsaila osoan zehar egongo da erakusketa zabalik.



Iñaki Agirresarobek Maskaradari buruzko argazki erakusketa ipini du Zarauzko Euskalduna tabernan.

**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Patxi**  
Patxienea  
Jateketa

· bazkariak EGUNERO  
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

## Miriam Arrillaga, Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketan

**B**inakako Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketaren bigarren jardunaldia Murgian jokatu zen aurreko asteburuan. Lehen Mailan, Leire Garai eta Leire Etxaniz egungo binakako txapeldunak 18-11 irabazi zieten Patri Espinar eta Miriam Arrillagari. Azken emaitzak dioenaren kontra, partida oso borrokatua izan zen.



Ezkerretik hasita, hirugarrena da Miriam Arrillaga.

## Bazpi, Gipuzkoako Kopan hirugarren

Aurreko asteburuan, Gipuzkoako Kopako bigarren jardunaldia jokatu zen Anoetako Belodromoan. Buruntzaldeko Bazpi taldea hirugarren sailkatu zen.

Junior mailan, Jaime Romero nagusitu zen eta, kadeteen mailan, Haimar Etxeberria hirugarren izan zen.

Datorren asteburuan Espainiako Pista Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu da Galapagarren (Madril). Euskadi taldearekin arituko dira Haimar Etxeberria, Beñat Carbayed, Jaime Romero eta Asier Pozo.



Anoetako Belodromoan egin ziren lasterketak.

## Euskal Herriko mus txapelketako emaitzak

Euskal Herriko 11. Mus Txapelketako Gipuzkoako finalerako Usurbilgo eta Aginagako ordezkariak nortzuk izango diren erabaki dira, azken bi ostiraletan Atarialde eta Aitzaga elkarteetan

ospatu diren sailkapen probetan. Urtarrilaren 25ean Aginagan jokatu saioan, Gontzalo Bruño Azpiroz eta Aguxtin Ugarte "Txantxon" sailkatu ziren. Otsailaren lehenean Aitza-

gan jokatu saioan, bi bikote sailkatu ziren: saioko txapeldun Albaro Bruño eta Justo Pulido batetik; eta txapeldunordeak, Koldo Lizaso eta Joseba Errazkin.

### Futbola Haranen

#### Otsailak 9, larunbata

- 09:30 Alebin neskak: Udarregi 6B-Urnieta 5
- 15:30 Jubenilak: Usurbil F.T.-Sanse B
- 17:45 Erregionalak: Usurbil F.T.-Sporting Herrera

#### Otsailak 10, igandea

- 16:00 Futbol Eskola 2009

### Es Kubaloia kiroldegian

#### Otsailak 9, larunbata

##### Eskola Kirola

- 9:30 Alebin mutilak: Udarregi 5B-Udarregi 5D
- 10:30 Infantil mutilak: Udarregi A-La Salle Saieko
- 11:45 Infantil neskak: Udarregi A-La Salle Saieko

##### Usurbil K.E.

- 16:00 Kadete neskak, Territorial maila: Usurbil K.E.-San Adrian (fasea)
  - 17:30 Kadete mutilak, Territorial maila: Usurbil K.E.-Leizaran
  - 19:00 Senior neskak, Territorial maila: Usurbil K.E.-Ordizia
- Oharra: behin behineko ordutegiak. Beste partidaren bat gehiago programatu dezakete Usurbil K.E.-k eta Usurbil F.T.-k.*

### Joko Garbi Zubietan

#### Otsailak 7, osteguna

- 19:00 Zubieta 2-Zubieta 1.
- Tokia: Zubietako frontoia.  
Atsedena: Zubieta 3.

### Erregionalak

#### animatzera

#### joateko deia

Usurbil F.T.-tik aditzera eman dutenez, erregional mailako futbol taldea igoera fasera igotzeko neurketa garrantzitsua jokatu dute. Irabazten badute kasik fase horretan sartuta egongo dira. Taldeak larunbatean (otsailak 9) 17:45ean hasitako Haranen jokatu duten partidara animatzera joateko deia egiten dute.



EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITAR TEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

**943 36 91 39**

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)



**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008



**EROSKI** / city

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrentzear. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m<sup>2</sup> eta garajeak 22m<sup>2</sup>. 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>- terraza, 8 m<sup>2</sup> trastelekua eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60.

## Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu.

675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-letal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez

da garaje itxita. Prezioa negoziatuzko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezua: [gorputzaldiak@udarregi.eus](mailto:gorputzaldiak@udarregi.eus)

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegi-[info@restaurantearatz.com](mailto:info@restaurantearatz.com)

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera [altuak.jm.fandino@catalanaocidente.com](mailto:altuak.jm.fandino@catalanaocidente.com). 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabil. Garbiketean, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziakin pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Ur-tarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketean. 671277904



## Zorionak Aritz eta Xabi!

Otsailaren 6an eta 15ean izango dira zuen urtebetetzeak. Ondo pasa!



## Zorionak Haritz!

Otsailaren 8an 11 urte beteko dituzu. Muxu handi bat familiaren partez.

**OHARRA:** 2018ko otsailaren 15ean aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinartzeko azken eguna: otsailaren 11n astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztua (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean,

gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen,

hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziarekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriko eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziarekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsaldetan umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

#### BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

4 gurgildun karro elektrikoak salgai. Scooter markakoa. Egokia elbarri-tuentzat. Tel. 664 609 596

3 metroko tolo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Oxelo markako patinete bat galdut dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Izaro

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingleseko eta frantsesezko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! Telefono zenbakia: 943 36 12 16

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenean ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Deputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreata...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Egunezko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 07** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 08** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 09** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 10** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 11** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteartea 12** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 13** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

## Otsailak 07 - Otsailak 17

**Osteguna 14** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 15** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 16** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 17** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda otsaila

## 08 ostirala

■ **Jubilatuena Astea: antzerkia** 17:30ean Sutegiko auditorioan.

## 09 larunbata

■ **Jubilatuena Astea: arratsalde pasa soinu-joleekin** 17:00etan Sutegin.  
 ■ **Kontzertu gaua Aginagan.** Eraso, Kokein, Dj Bull. 23:30ean Aginagako Eliza Zaharrean.

## 10 igandea

■ **Jubilatuena Astea:** 12:00etan Meza nahi dutenentzat. 14:00etan Bazkaria Aginaga Sagardotegian.

## Kontzertu gaua Aginagako Eliza Zaharrean

**E**raso, Kokein eta Dj Bull goizaldera arte arituko dira larunbat honetan Aginagan. Urteko lehen kontzertu gaua izango da.

Gaueko 23:30ean hasiko da jaialdia. Sarrerak aldeztu aurretik eskuratu daitezke, 8 eurotan, Aginagako Arrate eta Usurbilgo Aitzaga tabernetan. Kontzertu egunean bertan ere eskuratu ahalko dira.



Eraso, Kokein (argazkian) eta Dj Bull arituko dira larunbat honetan Aginagan.

## Erlo-Xoxotera irteera irekia, otsailaren 16an

Andatza M.K.K.-ren zuzendaritza talde berriak bi txango antolatu ditu otsailarako. Lehenengoa federatuentzat, igande honetarako (otsailak 10). Usurbil, Ernio eta Alkiza lotuko dituen ibilbidea osatuko dute. 8:00etan finkatu dute biltzeko hitzordua Oiardo Kiroldegian. Izen ematea itxita dago.

**Izen-ematea, otsailaren 12a baino lehen**  
 Otsailaren 16rako (larunbata) bestalde, "Euskal Herriko mendiak ezagutzen" ekimenaren baitan, Erlo-Xoxote irteera antolatu dute. 7:45ean finkatu dute

abiatzeko hitzordua, Oiardo Kiroldegitik. Itzulera, 13:30ak alderako aurreikusia dute. Aurreko aldizkarian oker azaldu genuen; txango hau irekia da edonorentzat, bai federatu zein federatu gabe daudenentzat. Otsailaren 12ra arte eman dezakezue izena emailaz, andatzamkk@gmail.com helbidean. Bidaia eta hamaiketakoaren truke 7 euroko ordainketa egin beharko da, kontu zenbakiotako batean:  
 Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321.  
 Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805.  
 Informazio gehiago: andatza.com

### Datozenak

#### Pagolako maskaradara irteera

Ekainaren 16ean Usurbilen izango dugun hitzordua girotzen hasteko, Orbeldi Dantza Taldeak otsailaren 17an Zuberoako Pagola herrian ospatuko den maskarada ikusteko autobus zerbitzua antolatu du. 8:30ean abiatuko da Oiardo Kiroldegitik, eta 21:30ak aldera izango da itzulera. Prezioa: 10 euro. Jatekoa norberak eraman beharko du. Izen ematea otsailaren 8ra arte, orbeldi.udt@gmail.com helbidean edo ostegunetan 19:00-21:00 artean Oiardo Kiroldegiko dantza gelan.

#### Euskal Inauteriak, Zubietatik Lasarte-Oriara

Sustraitzen doan ohitura da. Zubietarrek kalejiran ateratzen dira eta Hipodromoko zubian bat egiten dute lasarteoriatarrekin. Aurten otsailaren 23an berriro dute ohitura.



Otsailaren 23an egingo dute kalejira.



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

## ANTXETA

taberna-jatetxea

eguneko menuak  
 ogitartekoak  
 plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44



## Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

Zubiaurrenea, nº2  
 ☎ 943 36 55 81  
 20170 Usurbil

# URDAIRA

## Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarrilaren 18tik maiatzak 6ra  
TXOTX GARAI  
Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani  
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com

### IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi  
berria 2019, primerako  
sagardoekin  
943.361.229



# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



943 37 39 95

Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

## aginaga

### SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA



### 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!



%100 bertako satarra

### Tel: 943 365 031

Santuenea

# Usurbil gozatu! Ugartondo

## AUKERA PAREGABEA!

Etxebizitza **TASATUAK**, garaje eta trasteroarekin.  
**161.000€**tik aurrera, sukaldea guztiz osaturik,  
armario enpotratuak gela guztietan,  
**Zozketarik gabe**, ez utzi pasatzen aukera hau!

Efizientzia energetikoa "A"  
eta ingurune naturalaz inguratua



# Jaureguizar

943 579 366

619 508 392

Kale Nagusia, 10 · Usurbil

[www.jaureg.com](http://www.jaureg.com)